

Karrikako harat-honatak

Lasterkari bat pasatzen da.

Emazte xaharra : A ! Zein goxoa den karrika hau ! Zer isiltasuna ! Eta hemen bizi den jendea hain da baketsua eta ontsa ikasia !

Bi gazte oihuka eta jende basa batzuk bezala sartzen dira beren irristailuen puntan. Emazte xaharra abantzu aurtikitzen dute.

Emazte xaharra : Jesus, Maria eta Josepe ! Zer dira jende basa horiek ? Nondik ateratzen dira ?

Lasterkaria pasatzen da.

Karrikako anderea : Bada bi egun hemen gaindi ibilki direla. Ez dakit nondik ateratzen diren baina jakin ezazu bazterrak harrotzen dituztela !

Emazte xaharra : Adio, beraz, gure bakea ? Ez, ez dugu gure karrika gazte bihurri horien meneko utzi behar ! Polizia deituko dugu !

Anderea : Egia erran... nahiago nuke ez bagenio poliziari aipatzen... zeren eta... badakizu...
(ez gustuan) egiten dudana ez baita... nola erran...

Emazte xaharra : Bon, bon, ulertua dut. Ez du balio marrazki bat egin diezadazun. Jesus, Maria eta
(orduak ohartzen da Josepe !
norenkin mintzo den)

Lasterkari bat pasatzen da, gero eta kraskatuagoa.

Berriz ere, bi irristalariak ateratzen dira oihuka.

Lasterkaria : Aspertua naiz ! Ez dut gehiago ene goizeko lasterraldia egiten ahal ! Toki guzia hartu nahi dute beren patina kuskulinekin ! Banoa berehala beste karrikan den polizia-etxera !

Emazte xaharra : Ez, ez, ez ! Ez du balio ! (Diskretuki anderea erakutsiz) Guhaurek aterabide bat atzemanen dugu. Ez dugu nehoren beharrik.

Lasterkaria : Joanen naiz beraz ene errugbi taldearen bila. Ikusiko duzue furfuriak ez zaizkienetz sartuko pistolet horiei !

Anderea : Errugbi talde bat honat heldu baldin bada, hobe nuke menturaz hemendik urruntzea.

Gazteak basaki sartzen dira berriz. Emazte xaharra, parasola luzaturik, haien ondotik abiatzen da.

Emazte xaharra : Zatozte honat, mukizu zikinak ! Zer uste duzue ? Iziazten nauzuela ? Are, zatozte !

Anderea : Otoi, anderea ! Lasai zaitez ! Ez da on zure bihotzarentzat !

Lasterkaria : Zerbait egin behar dugu ! Ez dugu amore eman behar, bestenez ez gara istante gure etxetik jalgitzera menturatuko ere !

Anderea : Nik badut ideia bat.

Hirurak ahapetik mintzatzen dira eta bazter batean gordetzen. Gazteak berriz ateratzen direlarik, jauzi egiten diete gainera eta tinki atxikitzen.

Gazte bat : Zer duzue ? Zer egiten duzue ?

Bigarrena : Laxa gaitzazue ! Ez dugu fitxik egin !

Emazte xaharra : Ez duzuela fitxik egin ? Ikaran bizi gara zuengatik !

Lasterkaria : Ez diguzue kurritzeko lekuri ere uzten !

Gazte bat : Bistan dena : bare batzuk bezala ibiltzen zarete !

Emazte xaharra : Zer diok mukizu zikina ?
(parasola altxatuz)

Anderea : karrika denentzat egina da eta bakoitzak badu bakean ibiltzeko eskubidea.
(emazte xaharra
gibelera tiratuz)

Gazte bat : Bai, baina guk ere ibiltzeko eskubidea dugu !

Bigarrena : Ez da gure falta karrika baizik ez baldin badugu !

Lasterkaria : Hautsi-mautsi bat pentsatua dugu. Hara : karrika aldizka baliatuko dugu.

Anderea : Astelehenetan zuentzat izanen da. Astearteetan, emazte xahararentzat...

Emazte xaharra : Eta bai, merkatu eguna baita, plazaraino joanen naiz Zubiondoko Roxalirekin erosketen egitera.

Kirolaria : Asteazkenetan, ene aldi.

Emazte xaharra : Ostegunetan karrika berriz ere zuentzat izanen da.

Anderea : Ostirala, egunaz jaun honentzat izanen da eta arratseko 8 orenetatik goiti enetzat, orduan baitut tenore hoberena lan egiteko.

Larunbata ere enetako atxikitzen dut. Igandea, amatxiri utziko diogu.

Amatxiri : Alabaina, mezara joan behar dut, gero, nik. Segur naiz ez dudala konkurentziarik ukanen hortan !

Anderea : ados zarete ?

Gazteak : Bon, gure artean mintzatuko gara...

Andere xaharra : Ados zaretea, bai ala ez ?
(parasola erakutsiz)

Gazteak : Bai, bai, hain plantan galdeginik !

Emazte xaharra : Gure arteko bakearen ospatzeko, txokolatesne baten edatera gomitatzen zaituztet. Zatozte zuek ere, buru bero ergelak !
(Publikoari) Behingoan koka-kolarik gabe egonen dira, deabruak ez badu !

Jokalariak : Emazte xahar bat, lasterkari bat, andere bat, gazte batzuk.
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : Kolegiotik goiti